

GAZTEENTZAT BIDERATUTA 2012AN AISIALDI DENBORAN PROIEKTUEN ETA JARDUEREN ANTOLAKETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

Lehena: Xedea

Oinarri hauen helburua da Ondarroako 14 eta 18 urte arteko gazteentzat bideratuta 2012an aisialdi denboran proiektuen eta jardueren antolaketa diruz laguntzea

Diruz lagunduko diren proiektu eta jarduerak honakoak sustatuko dituzte

- 1- Parte - hartzea eta balioetan hezteak (errespetua, elkartasuna,)
- 2- Ohitura osasuntsuak, kultur egitasmoak eta sorkuntza
- 3- Autonomia eta garapen pertsonala

Bigarrena: Erakunde onuradunak

1. Elkarrekin eta pertsona fisikoek eskatu ahal izango dute diru-laguntza hau, baldin eta euren jarduerak deialdi honen helburuarekin bat badatoz eta honako baldintza guztiak betetzen badituzte:

- A. Irabazi-asmorik ez izatea, eta irabazi-asmorik duen erakunderen baten mende ez egotea, ez ekonomikoki, ez erakunde-izaerari dagokionez.
- B. Euren estatutuetan beren-beregi agertzea euren helburuen artean gazteen artean aisialdia sustatzea dagoela. Eta horrelakorik agertzen ez bada, ordea, frogatik egiaztatuko da erakundeak etengabe jarduten duela eremu jakin horretan.
- C. Aurkeztu dituzten proiektuak gauzatu, horien segimendua egin, justifikatu eta balioztatzeko beharrezko gaitasun eta bitarteko nahikoak izatea.
- D. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan diru-laguntzak eskuratzeko ezarritako debekuren batean ere ez egotea.
- E. Ondarroako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazioak behar duen moduan eta egunean izatea.
- F. Zuzenbide publikoaren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea.

2. Deialdi honetan parte hartzetik kanpo geratuko dira, beren-beregi, gainerako Herri Administrazioen eta, oro har, finantza-erakundeen mendeko erakunde edo zerbitzuak.

Hirugarrena: Diruz lagun daitezkeen proiektu eta jardueren nolatasuna

Diru-laguntzak jaso ahal izateko, honelakoak izan behar dute proiektuek eta jarduerak:

- A. Irabazi-asmorik ez izatea eta, ondorioz, diru-laguntzak inola ere ezin izango du onurarik sortu diru-laguntza eskatu duen erakundearentzat.
- B. Ondarroako 14-18 urte duten gazteei zuzendutako proiektuak eta jarduerak izatea
- C. Jarduerak finantza-bideragarritasuna izatea. Hartara, erakunde onuradunak bereganatuko du Ondarroako Udalaren diru-laguntzaren bitartez estali ez den kostua, eta horretarako bere baliabideak baliatuko ditu edota finantziario publiko zein pribatuko beste iturri batzuk.
- D. Proiektua gauzatzeko, lehentasunez, tokiko enpresek edo erakundeek parte hartzea.
- E. Ondarroako udalaren hizkuntza irizpideak betetzea.
- F. Jarduerak eta proiektuak I. puntuak dituzten ezaugarriak izatea.

Laugarrena: Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Zuzeneko kostuak nahiz zeharkakoak diruz lagun daitezke; betiere, era honetakoak baldin baldira:

- A. KOSTU ZUZENAK: Diruz lagunduko den proiektuari edo jarduerari berari, argi eta garbi, dagozkionak eta behar den ekipamendua zein tresneria erosketei dagozkienak.
- B. ZEHARKAKO KOSTUAK: Diru-laguntza eskatu duen erakundeak jarduerak egin, kontrolatu eta segimendua egiteari lotutako administrazio (telefono deiak, ...eta mantenu (hornidurak, ...) gastuak izango dira. Zeharkakoak gastuak gehienez eskaeraren % 20 izan ahalko dira

Bosgarrena: Diru-laguntzen zenbatekoa

1. Zazpigarren artikuluan aurreikusitako puntuen arabera diru banaketa egingo da.
2. Jasotako diru laguntza bestelako diru-sarrerekin batera, ezin izango du erakunde onuradunak gauzatu beharreko jardueraren kostu osoa gainditu, inola ere ez. Diru-sarrera eta gastuen justifikazioa aztertutakoan diru-sarrerak gastuak baino handiagoak direla ikusten bada, Ondarroako Udalak emandako diru-laguntzari gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko dio.

Seigarrena: Diru-laguntzak emateko araubidea

1. Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak emateko, norgehiagoka araubideari jarraituko zaio.
2. Diru-laguntzak emateari begira, hauxe da norgehiagoka araubidea: hainbat eskabide izango direla aurreikusten denez gero, diru-laguntzak emateko ebazpena hartuko da eskabide horiek erkatuta, prozedura bakar batean. betiere, deialdi honen zazpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera eta muga baten barruan, alegia, dagokion aurrekontu-partidan gordailutatutako zenbatekoa.
3. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da, eta kide hauek osatuko dute:
 - o Lehendakaria: Joseba Zabaleta
 - o Idazkaria: Ondarroako Udaleko Idazkaria
 - o Kideak: BILDU ren ordezkaria (2), EAJ-PNV ren ordezkaria (1)
4. Diru-laguntzak Alkatearen erabakiaren bidez emango dira, berriaz sortutako Balorazio Batzordeak, oinarri hauetan finkatutako prozeduraren haritik, horretarako egingo duen proposamena ikusi eta gero.

Zazpigarrena: hautatzeko eta balioztatze irizpideak

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak emateko, ondoren zerrendatutako diren irizpideak eta gehieneko puntuak aplikatuko dira:

Guztira 20 puntu

Irizpideak	Puntuak gehienez
Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa.	2
Proiektua eta jarduerak emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldekoak badira	2
Proiektuak eta jarduerak kultura aniztasuna sustatzen badute	2
Autonomia eta garapen pertsonala bultzatzen badute	2
Talde lana sustatzen badute	2
Osasun ohitura egokiak sustatzen badituzte	2
Kontsumo arduratsua bultzatzen badute	2
Parte hartzea bultzatzen badute	2
Euskara eta Euskal kultura sustatzen badute	2
Ingurumenaren zaintza eta errespetua lantzen dutenak badira	2

Gutxienez 10 puntu beharko dira banaketan parte hartu ahal izateko

Puntuen arabera banaketa	Eskatutakoaren%
18- 20	100
18-16	90
16-14	70
14-12	50

Diru partida nahikorik ez balego bakoitzari dagokionaren zati proportzionala esleituko litzaioke aurretik egindako banaketaren arabera.

Zortzigarrena: Eskabideak eta agiriak aurkezteko modua eta epea

1. Eskabideak aurkezten badira, ulertuko da oinarri hauetan azaldutako baldintzak guztiz eta beren-beregi onartu direla. Eskabide bat aurkeztuko da diru-laguntza lortu nahi den ekintza edo proiektu bakoitzeko.
2. Normalizatutako eskabidea aurkeztuko dute (A ereduko - I. eranskinari jarraituz, A1, A2 eta A3) oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskuratu nahi dituzten erakundeek, behar bezala beteta eta, nahitaez, honako agiri hauekin batera:
 - A. Elkartea izanez gero, eskaera egiten duen erakundearen estatutuen fotokopia.
 - B. Eskabidea gauzatzen duen pertsona fisikoaren NANaren fotokopia eta, hala badagokio, egiaztagiri bat erakunde eskatzailearen izenean eta ordezkaritzan jardun dezakeela egiaztatzeko.
 - C. Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko kodearen fotokopia, hala badagokio.
 - D. Hartzekodun-fitxa, behar bezala beteta, berari dagokion diru-laguntza ordaintzeko (II. eranskineko ereduaren arabera)

Nolanahi ere, a, b, c eta d ataletan eskatutako agiriak Administrazio honen esku badaude eta indarrean badaude, ez dago zertan eskabideari erantsi.
 - E. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren, Foru Ogasunaren eta Udal Ogasunen ziurtagiriak, erakunde edo pertsona eskatzaileak erakunde horiekin dituen betebeharrak egunean ordainduta dituela adierazteko. Ziurtagiri horiek deialdi honen argitalpenaren ondorengo egunen batekoak izan beharko dute. Erakunde edo pertsona eskatzailea zuzenbide publikoko zerga-betebeharretatik salbuesita egonez gero, hark salbuespen hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko du.
 - F. Ondorengo aitorpenak (III. Eranskina):
 - Erakunde edo pertsona eskatzailearen aitorpena adierazteko ez dagoela edozein prozeduratan diru-laguntza batengatik edo antzeko laguntzaren batengatik, alegia, itzultzeko prozedura edo zigor-prozeduraren batean ere ez dagoela.
 - Erakunde edo pertsona eskatzailearen aitorpena adierazteko ez duela batere debekurik diru-laguntzak eskuratzeko, hau da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekuren batean ere ez.
 - Eskabidea izenpetzen duen pertsonaren zinpeko adierazpena haxe egiaztatzeko: batetik, pertsona horrek edota erakunde eskatzaileak ez dutela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-diskriminazioa egiteagatik; eta, bestetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean ez zaiela debekurik ezarri zigorrak irauten duen aldian ebazpen honetan araututako diru-laguntza eta laguntzak eskatzeko.
 - G. Diruz laguntzea eskatu den proiektua edo jarduera babesteko erantzukizun zibileko aseguru kontratatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria. Onartuko dira aseguru-etxeak berak egindako ziurtagiriak edo aseguru-artekaritza batek egindakoak.
 - H. Diru-laguntzaren %100a alde aurretik ordaintzeko eskaera egiten bada, txosten bat aurkeztuko da, behar den moduan azalduta horren beharra eta eskatutako diru-kopurua.
 - I. Erakunde edo pertsona eskatzaileak egokitzen jotzen dituen beste agiri batzuk, deialdi honen zazpigarren oinarrian ezarritako balorazio-irizpideak aplikatzean kontuan har daitezten.
3. Eskabideak aurkeztuko dira, aipatutako agiri horiekin batera, Ondarroako Udalaren Erregistro Nagusian, Kantoipe 3an, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean idatzita bezala– azaldutako moduren batean.
4. Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak eskuratu ahal izateko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratzen den biharamunetik aurrera zenbatuta.
5. Epea kanpo aurkeztutako eskabideak baztertu egingo dira, proiektuak balioztatu ere egin gabe.

Bederatzigarrena: Eskabidea zuzendu eta espedientea artxibatzea

Eskabideak behar bezala beteta ez badaude edo nahitaezko agiriekin batera aurkeztu ez badira, errekerimendua egingo zaio erakunde eskatzaileari (Batzordeburu eta alkateak sinatuta), hamar asteguneko epean huts hori zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Eta ohartaraziko zaio horrela egin ezean, eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela. Horretarako ebazpena hartu beharko da beren-beregi, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluan –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean idatzita bezala– xedatutakoari jarraituz.

Hamargarrena: Tramitazioa, ebazpena eta errekurtsioak

1. Eskabideak jasotakoan, Ondarroako Udaleko Idazkariak 8.artikuluan zehazten denari buruzko txosten bat egingo du Ebaluazio Batzordearentzat, eta kide anitzeko udal organo horrek Alkateari egingo dio diru-laguntza adjudikatzeko proposamena. Aipatu arduradunak egindako txostenean diru-laguntza deialdiak oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen ote dituen adieraziko da.
2. Ebaluazio batzordeak Alkateari egingo dio diru-laguntza adjudikatzeko proposamena. Hartara, zazpigarren oinarrian ezarritako irizpideak aplikatuko ditu eta, horien arabera, eskabide bakoitzari emango dizkio dagozkion puntuak, eta, ondoren, bidezko diren diru-laguntzak emateko proposamena egingo du, norgehiagoka araubideari jarraituz, betiere
3. Alkateak, txosten hori ikusita, bidezko diren diru-laguntzak ematea edo, hala badagokio, ukatzea ebatziko du. Ebazpenean, gainera, diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak adieraziko dira, hala nola, zein epetan gauzatu behar den proiektua, zein modutan eta zein epetan justifikatu behar den proiektua gauzatu izana, zer agiri aurkeztu behar diren eta abar.
4. Diruz lagundutako erakundeak edo pertsonak aldaketaren bat egin behar duela uste badu ekintzaren garapenean, hasieran aurkeztutako egitasmoan aurreikusitakoaren aldean, egin ahal izango du; baina, horren aurretik, Balorazio Batzordeak baiezkota eman beharko dio berariaz.
5. Diru-laguntza emateko ebazpena ere aldatu edo baliogabetu ahal izango da, baldin eta kontuan hartu diren baldintzetan zerbait aldatu baldin bada.
6. Diru-laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenek emango diote amaiera administrazioaren bideari. Nolanahi ere, interesdunek, nahi izanez gero, ebazpen horien kontra egin dezakete eta berraztertze errekurtsioa aurkeztu Alkateari, edo, bestela, zuzenean egin ahal izango dute horien kontra Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan.
7. Ulertuko da erakunde onuradunek diru-laguntzak onartzen dituztela, baldin eta ez badiote Ondarroako Udalari idatziz jakinarazten diru-laguntzari uko egiten diotela, hamar asteguneko epean, diru-laguntzak emateko erabakia jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.
8. Diru-laguntzak emateko espedientearen ebazpena emateko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita; diru-laguntza eskabideak ez onartuzat joko dira data horretarako beren-beregi ebazpena egokitzen ez bazaio, betiere, Udalak daukan eskabideak beren-beregi ebazteko betebeharrari kalterik egin gabe.

Hamaikagarrena: Diru-laguntzak ordaintzea

Onartutako diru-laguntza bi epetan ordaindu ahal izango da (lehenengo %85, eta ondoren, gainerako %15a).

- Lehenengo %85a ordaintzeko hilabeteko epea izango da, Organo eskudunak diru-laguntza ematea onartzen duenetik hasita. Beti ere, onuradunak aurretik ordaintzeko eskatzen badu.
- Aurreko kasuan, gainerako diru-laguntza jasotzeko (%15a), hurrengo artikuluan zehaztutakoak aurkeztu beharko dira horretarako jarritako epean.
- Onuradunak diru aurrerakinik ez badu eskatzen, hurrengo artikuluan zehaztutakoak aurkeztu beharko dira, horretarako jarritako epean, diru-laguntza jasotzeko.

%100a ere ahal izango da aurreratu kasu berezietan. Horretarako, txosten bat aurkeztu beharko da, behar den moduan azalduta horren beharra.

Hamabigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa

Erakunde onuradunek justifikatu behar dute emandako diru-laguntza zertan erabili duten, 2013ko urtarrilaren 31 a baino lehenago, justifikazio-kontu sinpleaz baliatuz.

Honelaxe osatuko da justifikazio kontu sinplearen informazioa:

1. Ekintzaren bilakaerari buruzko txostena behar den moduan osotua eta normalizatutako ereduaren arabera (B ereduko eranskinen arabera I eranskina, B1, B2 B3 eta B4).
2. Gastuen egiaztatagiriak. Gastuen jatorrizko agiriak edo konpultsatutako fotokopiak erantsiko dira eta, gutxienez, justifikatuko da onartutako diru-laguntzaren zenbateko bera, zeharkako gastuei (gehienez eskaeraren % 20) dagokien kopurua izan ezik. Edozelan ere, Udalak eska dezake beste gastu guztien justifikazioa aurkezteko.

Onartuko dira gastuen egiaztatagiri gisa honako agiri hauek:

A. Fakturak; baldin eta hauek datu guztiak ageri badira:

- Faktura-zenbakia.
- Fakturaren data.
- Identifikazio osoa (izen-abizenak, erakundearen izena eta helbidea), bai faktura egin duenarena bai hartzailearena.
- Faktura egin duenaren eta hartzen duenaren IFZ edota NANA.
- Jardueraren edo zerbitzuaren deskribapena.
- Kuota jasanarazia eta BEZa.
- BEZtik salbuetsita egonez gero, horren zergatia azaldu beharko da fakturan.

B. Autopistako tiketak, garraio publikoko tiketak, aparkalekuetako tiketak, erregai kostuen tiketak, baldin eta aurkeztutako proiektuarekin bat badatoz. Erregaiari dagokionez, gehienez, kilometroko 0,29 € kontutan hartuko dira.

C. Aseguru polizen ordainagiriak.

3. Diruz lagundutako jarduera dela eta argitaratutako publizitate euskarrien ale bana ematea (kartelak, esku-paperak, esku-orriak,...). Eta libururik argitaratu bada, berriz, ale bat ekarri behar da. Horietan elementu guztietan berariaz agertuko da Ondarroako Udalaren babesia.
4. Beste administrazio batek edo pertsona fisiko edo juridiko, publiko nahiz pribatu batek helburu berarekin ezelako diru-laguntzarik eman badu, hori jakinaraztea.
5. Hala eta guztiz ere, Ondarroako Udalak beste agirien bat eskatuz gero, eskatutako justifikazio-agiri horiek guztiak aurkeztu behar dituzte erakunde onuradunek, behar bezala egiaztatzeko diru-laguntzaren zenbatekoa zertan erabili den.

Oinarri honetako aurreko ataletan aipatutako agiriak aztertzean ikusten bada gehiago izan direla lortutako diru-sarrerak egon diren gastuak baino, errekerimendua egingo zaio erakunde onuradunari, Ondarroako Udalari itzul diezaion dagokion diru-kopurua Halakorik jasotzen bada, diru-sarrera publikotzat hartuko da.

Hamahirugarrena: Diru-laguntza itzultzea eta zigor-araubidea

1. Bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzultzea eta berandutza-interesak , diru-laguntza ordaindu denetik, eskatzea kasu hauetan:
 - A. Justifikatzeko betebeharra bete ez bada.
 - B. Beharrezko baldintzak bete gabe eskuratu bada diru-laguntza.
 - C. Diru-laguntzaren helburua bete ez bada.
 - D. Oinarri hauetan edo diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako beste baldintzaren bat bete ez bada.
2. Diru-laguntza itzuli beharra Alkatearen erabakiaren bitartez ezarriko da; betiere, erakunde onuradunari entzunaldia eskaini ondoren.

Hamalagarrena: Babesa

Diru-laguntza jaso duen erakundeak edo pertsona onuradunak ekintzen publizitatea egin behar du diruz lagundutako jarduera guztietan eta beren-beregi agerraraziko dute Ondarroako Udalaren babesa edo laguntza jaso dutela.

Publizitatea egiteko era ezberdinak daude, hala nola:

- Kartelak, esku-orriak, grabazioak, irradi mezuak edo antzekoak egitean aipamen zehatza eginda.
- Ondarroako Udalaren webgunean argitaratuz.
- Udalak herrian zehar dituen iragarki-tauletan iragarkiak zabalduz, eta horrela eginez gero, argazki baten bidez egiaztatuko da.

Hamabosgarrena: Arau orokorrak

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak arautzeko, oinarri hauetan eta diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako gainerako baldintzak erabiliko dira, bai eta Ondarroako Udaleko diru-laguntzen ordenantzan jasotakoak eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko aginduak ere, eurak aplikatu behar badira.

Hamaseigarrena: Aurrekontu gordailua

1. Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren pentzura emango dira, honako zenbateko eta kontu-sailetan:

PROGRAMA	ZENBATEKOA	KONTU SAILA
Gazte ekintzak	5000 euro	2012-03000-46110-4800100 ref 2012